

Azterketarientzako argibideak

4. HE

I. Mailaren deskribapen orokorra

Mailaren jabea gai da:

- Entzundako testu formalak ulertzeko, hizkera mota edozein dela ere.
- Edozein testu mota ulertzeko eta lanaren inguruko txostenak, artikulua, aldizkari espezializatuak eta, oro har, irakurritakoaren zehaztapenak jasotzeko.
- Lan-esparruko eta bestelako edozein egoeratan -oso konplexua izanda ere- egindako azalpenetan, elkarrizketetan edota eztabaidetan, bat-batean, erabat zuzen, ziur, natural eta jario handiz aritzeko.
- Era askotako testuak sortzeko: testu erabat argiak, koherenteak, zehaztasun handikoak, zuzenak eta estilo egokikoak.

4. HE eta Europako Erreferentzia Markoaren C2 maila baliokideak dira.

[C2 mailari buruzko informazio gehiago.](#)

II. Azterketaldiaren nondik norakoak

4. HEko azterketa

Laugarren hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko prozesuak bi azterketa izango ditu, idatzizkoa eta ahozkoa. Azterketa bakoitzak bi trebetasun neurtuko ditu eta guztiak gainditu behar dira hizkuntza-eskakizuna aitortu ahal izateko.

Idatzizko azterketa

Azterketa idatziak bi trebetasun neurtuko ditu: irakurmena eta idazmena. Azterketa hori baztertzaila izango da; hau da, gainditu egin behar da ahozko azterketa egin ahal izateko.

irakurmen-proba: hiru irakurgai izango ditu gutxienez, eta guztira, 25 item. Gainditzeko, 13 item behar dira zuzen; hau da, % 50 gutxienez. Erantzun okerrenatik ez da punturik kenduko. Iraupena: 60-70 minutu.

idazmen-proba: gai eta helburu ezberdineko bi ariketa izango ditu. Ariketa biak egin behar dira, eta eskatutako hitz kopurua bete (250 hitz ariketako, gutxienez). Eskatutako hitz kopurua ez idatzi izanak puntu-galera ekarriko du. Probak, osotara, 30 puntu balio du eta gainditzeko, 15 puntu behar dira; hau da, % 50. Iraupena: 120 minutu.

Ahozko azterketa

Ahozko azterketak bi trebetasun neurtuko ditu: entzumena eta mintzamena.

entzumen-proba: hiru entzungai izango ditu eta, guztira, 25 item. Gainditzeko, 13 item erantzun behar dira zuzen; hau da, % 50 gutxienez.

Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

Iraupena: 40-45 minutu.

mintzamen-proba: trebetasun hau neurtzeko bi ariketa egingo dira: bakarrizketa eta bat-bateko elkarrizketa.

Azterketariak binaka arituko dira.

Probak, osotara, 30 puntu balio du eta gainditzeko, 15 puntu behar dira; hau da, % 50.

Iraupena: 35-40 minutu (15 min. gaia prestatzeko dira).

4. HE: Puntuazioaren laburpen-taula

	Proba mota	Balioa	Puntuak	Gutxienez
IDATZIZKO azteketa	Irakurmen- proba	% 20	20	10
	Idazmen- proba	% 30	30	15
AHOZKO azterketa	Entzumen- proba	% 20	20	10
	Mintzamen- proba	% 30	30	15
		% 100	100	

IVAPek egoki baderitzo, azterketa idatzia egin baino lehen, Atariko Proba aplikatuko du. Proba horren bidez neurtuko da idatzizko azterketara aurkeztu ahal izateko euskararen gutxieneko ezagupen-maila. Proba egiteko arrazoia da xede eta helbururik gabeko azterketarik ez egitea, eta baliabideak alferrik ez erabiltzea, ez Administrazioak, ez azterketariak.

Atariko Proba

Atariko Probak 45 galdera edo item ditu eta gainditzeko itemen % 75 erantzun behar da ondo. Hala ere, Atariko Proba gainditu dutenen kopurua aurkeztutakoen % 50era heltzen ez bada, murriztu egingo da proba gainditzeko zuzen erantzun behar diren itemen ehunekoa, gainditutakoen kopurua aurkeztutakoen % 50era iristeraino, hain zuzen.

Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

Iraupena: 50 minutu.

Atariko Proba baztertzaileria da; hau da, gainditu egin behar da hizkuntza-eskakizuneko azterketa egin ahal izateko.

III. Ebaluazio-irizpideak: idazmena eta mintzamena

IDAZMENA

Honako hauek izango ditugu kontuan ebaluatzeko orduan:

<p>Egokitasuna</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gaiari heldu dio. • Azalpenak eta argudioak eman ditu, eta ez da mugatu adibide eta pasadizo hutsetara. • Hitz kopurua bete du. • Testu mota errespetatu du. <i>(Esaterako, argudiozko testua --iritzi-artikulua, kasu-- eskatu zaionean, ez du idatzi bestelakorik, azalpen hutsezko testua adibidez).</i> • Kontuan hartu du testu osoan nori idatzi dion, zertarako, testuingurua... eta erregistroa zaindu du.
<p>Koherentzia</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ideiak argi, zehatz eta egoki antolatuta adierazi ditu. • Testuaren egitura egokia da. Informazioa modu progresiboan eman du.
<p>Kohesioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ideiak, esaldiak eta paragrafoak ondo eta egoki lotuta daude; horretarako, testuari batasuna emateko kohesio-forma eta lotura logikoak zuzen eta egoki erabili ditu testu osoan. • Puntuazioa egoki eta zuzen erabili du. Ondorioz, testuaren irakurketa garbia da.
<p>Aberastasuna</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hiztegi orokorra, hau da, dibulgazio-gaiei dagokiena (eguneroko prentsa...) ez ezik, hiztegi berezitua ere (lan esparrukoa...) zuzen, egoki eta zehatz erabili du. • Ideiak zehaztasun eta ñabardura guztiez adierazi ditu, baliabide oparoak erabilia.
<p>Zuzentasuna</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ortografia zuzen erabili du. • Ia ez du akatsik egin.

MINTZAMENA

Honako hauek izango ditugu kontuan ebaluatzeko orduan:

<p>Komunikagaitasuna</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gaiari buruzko azalpenak, argudioak, iritziak eta ideiak argi, zehatz, ondo antolatuta eta egoki lotuta eman ditu. • Elkarrizketan iritzia, argudioak eta informazioa trukatzeko ez du arazorik izan; hau da, hartu eta eutsi egin dio hitzari, esan nahi duenari mugarik jarri gabe. • Malgutasun handia erakutsi du ideiak birrantolatzeko. • Ariketa bietan erabili du erregistroa egoki. <i>Kontuan hartu bakarrizketan ez ezik, elkarrizketan ere lan-arloko gaien inguruan egin beharko duzula hitz; hau da, azalpen teknikoak eman beharko dituzu; beraz, hiztegi zehatza erabili beharko duzu eta ideiak xehetasunez adierazi, behar diren baliabideak erabilita.</i>
<p>Jariotasuna</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bat-batekotasunez, jario handiz, erraz eta trebetasunez egin du hitz, bai azalpenetan, bai elkarrizketan. • Hitz egitean erabateko ziurtasuna erakutsi du. • Etenak behar bezala egin ditu, esaldien barruko zein esaldien arteko egiturak errespetatuta. • Natural hitz egin du.
<p>Aberastasuna</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hiztegi orokorra, hau da, dibulgazio gaiei dagokiena (eguneroko prentsa...) ez ezik, hiztegi berezitua ere (lan esparrukoa...) zuzen, egoki eta zehatz erabili du. • Ideiak zehaztasun eta ñabardura guztiez adierazi ditu, baliabide oparoak egoki erabilita. • Zailtasunak erraz saihestu ditu.
<p>Zuzentasuna</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Jardun zuzena osatu du, akatsik gabea. • Egituretan ez du erdararen eraginik. • Ahoskera eta intonazioa egokiak eta naturalak izan dira.